SOZIETATEEN MOZKINAREN GAINEKO ZERGA: ARIKETAK

1 ARIKETA

LEM, S.A. sozietateak honako balantzea aurkeztu du X1 ekitaldiaren amaieran, mozkinaren gaineko zerga kontabilizatu gabe duelarik oraindik:

	X1/12/31			X1/12/31	
AKTIBOA	MGZ aurretik	Ondoren	**PASIBOA**	MGZ aurretik	Ondoren
AKTIBO EZ KORRONTEA	**1.000.000**		**ONDARE GARBIA**	**790.000**	
Ibilgetu materiala	**930.000**		**Fondo propioak**	**790.000**	
Makinaria	800.000		Kapitala	200.000	
Garraio elementuak	130.000		Erreserbak	500.000	
EL finantza inbertsioak	**66.000**		Zerga aurreko emaitza	90.000	
Geroratutako zergagatik aktiboak	**3.000**				
			PASIBO EZ KORRONTEA		
			Maileguak	**600.000**	
				572.000	
AKTIBO KORRONTEA	**1.000.000**				
Izakinak	**500.000**		**Zerga geroratuagatik pasiboak**	**28.000**	
Zordun komertzialak	**350.000**				
Bezeroak	*345.000*				
OP zorduna	*5.000*		**PASIBO KORRONTEA**	**610.000**	
Diruzaintza	**151.000**		Hornitzaileak	610.000	
GUZTIRA	**2.000.000**		**GUZTIRA**	**2.000.000**	

Informazio osagarria:

a) X1 ekitaldiko zerga aurretiko emaitza kontablea 90.000€

b) LEM, SA ETEa da beraz %20eko zerga tasa du

c) X1 ekitaldian 1.000€ko isuna barneratu du kontabilitate gastuetan.

d) X0/01/01ean enpresak 160.000€ko makina bat bereganatu du. Kontableki 8 urteko bizitza erabilgarria izango du eta ondare balioa zero. Fiskalki enpresak amortizazio askatasuna aplikatu du X0 ekitaldian, fiskalki inbertsio hau bere osotasunean amortizatu duelarik.

e) X1/12/20ean LEM, SAk 30.000€ko saldoa duen bezero baten balio narriadura kontabilizatu du. Balio narriadura hau ezingo da fiskalki erabili X2 ekitaldia arte.

f) Balantzean ageri diran zerga geroratuagatik aktiboak aurreko ekitaldietako oinarri zergagarri negatiboei dagozkienak dira bere osotasunean

g) X1 ekitaldian 8.000€ko kenkariak aplikatu ahal izango dira egindako inbertsio batzuk direla eta.

h) Enpresak gehienez kuotaren %35eko kenkariak erabili ahal izango ditu.

i) X1ean jasandako atxikipenak: 5.000€.

ESKATZEN DA

1. **Likidazio fiskala**
2. **X1 ekitaldiko mozkinaren gaineko zergari dagozkion idazpenak**
3. **Balantzea eguneratu zergaren eraginarekin**

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea